# ORDEN DE LA CONSEJERA DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA POR LA QUE SE ACUERDA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL CON EL OBJETO DE ESTABLECER EL RÉGIMEN DE LAS ENTIDADES DE ASESORAMIENTO A LAS EXPLOTACIONES AGRARIAS Y DEROGAR EL DECRETO 272/2006, DE 26 DE DICIEMBRE, DE ENTIDADES DE ASESORAMIENTO A EXPLOTACIONES AGRARIAS

La Dirección de Agricultura y Ganadería ha solicitado el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de establecer el régimen de las entidades de asesoramiento a las explotaciones agrarias a la luz de la nueva reglamentación de la Unión Europea, y derogar el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias.

Previa a la iniciación, se ha cumplido con el trámite previsto en el artículo 11 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, con carácter previo a la elaboración del proyecto, con la publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la Resolución de la Directora de Agricultura y Ganadería, por la que se sometió a consulta previa a la ciudadanía, la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de establecer el régimen de las entidades de asesoramiento a las explotaciones agrarias y derogar el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias, por un plazo de 15 días,

El artículo 13 de la precitada Ley 6/2022, de 30 de junio, recoge el contenido de la Orden de inicio, que es el siguiente:

a) **Objeto y finalidad de la norma.**

Todos los países de la Unión Europea tienen un sistema de asesoramiento a las explotaciones agrícolas. Este sistema ayuda a los agricultores a comprender y cumplir mejor las normas de la UE en materia de medio ambiente, salud pública y sanidad animal, bienestar de los animales y buenas condiciones agrarias y medioambientales

Actualmente en el País Vasco, la regulación de ello la recoge el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias.

En junio de 2021, tras exhaustivas negociaciones, el Parlamento Europeo, el Consejo de la UE y la Comisión Europea, alcanzaron un acuerdo sobre la reforma de la política agrícola común (PAC). Este acuerdo se adoptó formalmente el 2 de diciembre de 2021 y la PAC 2023-2027 entró en vigor el 1 de enero de 2023, mediante el Reglamento (UE) 2021/2115 del Parlamento Europeo y del Consejo de 2 de diciembre de 2021 por el que se establecen normas en relación con la ayuda a los planes estratégicos que deben elaborar los Estados miembros en el marco de la política agrícola común (planes estratégicos de la PAC), financiada con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Garantía (FEAGA) y al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), y por el que se derogan los Reglamentos (UE) nº 1305/2013 y (UE) nº 1307/2013

La normativa europea, introduce cambios respecto al sistema de asesoramiento a las explotaciones agrícolas, que quedan reflejados en el artículo 15 del Reglamento

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 XXX XXX – e-mail: xxxxx@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T6N8T-XYYE
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** AMAYA BARREDO MARTIN | 2025/02/20 15:09:20

(UE) 2021/2115 del Parlamento Europeo y del Consejo de 2 de diciembre de 2021 por el que se establecen normas en relación con la ayuda a los planes estratégicos que deben elaborar los Estados miembros en el marco de la política agrícola común (planes estratégicos de la PAC), financiada con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Garantía (FEAGA) y al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (Feader), y por el que se derogan los Reglamentos (UE) nº 1305/2013 y nº 1307/2013, que es necesario incorporar a la normativa autonómica, y que no se contenían en la regulación que se va a proceder a derogar.

Además hay que actualizar la tramitación de las solicitudes de reconocimiento, que deben ser telemáticas, de conformidad con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que en su artículo 14 "*Derecho y obligación de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas*", dispone que para las personas jurídicas y las personas físicas que por su actividad profesional se requiera, es obligatorio relacionarse por medios electrónicos con las Administraciones Públicas para la realización de cualquier trámite de un procedimiento administrativo.

Siendo tales las actualizaciones necesarias, la necesidad de incorporar los servicios indicados por la normativa europea, de proceder a la tramitación telemática y que el decreto que debiera ser objeto de modificación es del año 2006, es por lo que se considera lo más adecuado la derogación del Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias y la aprobación de un nuevo decreto que regule el sistema de asesoramiento a las explotaciones agrícolas.

b) **Viabilidad jurídica y material de la norma**. Que la norma que se va a elaborar es viable jurídica y materialmente, ya que supone, entre otras cuestiones, el desarrollo del artículo 60 párrafo 2 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, que crea el Registro de Industrias Agrarias y Alimentarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco, profundizando el análisis jurídico en la memoria de análisis de impacto normativo.

Respecto de la competencia, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia para afrontar la regulación que contiene la norma que se tramita, pues la misma supone ejercicio de las competencias de las que es titular en virtud del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que señala una serie de materias, catalogadas por él, bien como de competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco (artículo 10), bien como de desarrollo legislativo y ejecución dentro de su territorio de la legislación básica del Estado o de las bases por él señaladas (artículo 11), o bien como de ejecución de la legislación del Estado (artículo 12).

En concreto la materia que regula el proyecto de norma que se propone se encuentra amparada en la competencia de desarrollo y ejecución de la competencia exclusiva que en *"agricultura y ganadería, de acuerdo con la ordenación general de la economía"* establecida tanto del artículo 148.7 de la Constitución como del artículo 10.9 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

En cuanto a la competencia frente a los Territorios Históricos, es necesario diferenciar las reconocidas expresamente a los Territorios Históricos en el EAPV que son inalterables por el legislador y las competencias atribuidas a los Territorios Históricos por el legislador en virtud del Art. 37.3 f) EAPV plasmadas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la

Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que conforman el ámbito de libre decisión de éste.

La materia que recoge el proyecto de norma es una materia no atribuida de forma específica y exclusiva a los Territorios Históricos en el artículo 7. a) de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunidades y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, correspondiendo la competencia a las Instituciones Comunes en virtud del artículo 6 del dicha Ley. Tampoco corresponde a los Territorios Históricos la competencia de desarrollo y ejecución sobre la materia objeto del proyecto de decreto, al no incluirse entre las previstas para ello en el artículo 7. b) de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre.

En lo que respecta a la competencia interna, la normativa habilitante se encuentra en el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, suspensión y modificación de los Departamentos de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como en el Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

En el artículo 1 párrafo a) del Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, se dispone que el Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, ejerza sus funciones sobre la materia de “*promoción y ordenación agrícola y ganadera”.*

El artículo 9, párrafo 1 apartado a) establece que corresponderá a la Dirección de Agricultura y Ganadería, entre otras, las funciones de *“Elaboración y coordinación de programas y actuaciones, incluídas las de fomento, dirigidas a la mejora de la competitividad y fomento de la digitalización de las estructuras productivas de las explotaciones agrarias.”*

**c)** **Análisis de la repercusión de la norma en el ordenamiento jurídico**. La norma que se va a desarrollar supone la derogación de una norma existente, a la sazón, el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias, razón por la cual, tiene repercusión en el ordenamiento jurídica actual de la CAPV.

Pero no solo se deroga la norma precitada, sino que se adapta de nuevo el régimen de las entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias, para actualizarlo a las nuevas necesidades producto de los 19 años de aplicación, a la tramitación telemática, a las nuevas necesidades de modernización y profesionalización del asesoramiento, y a la nueva reglamentación comunitaria.

d) **Incidencia presupuestaria**. La norma que se encuentra en proceso de elaboración no tiene incidencia presupuestaria directa. Solo podrá tener incidencia presupuestaria indirecta, Y ello, porque, si la Administración lo decide, podrá apoyar económicamente a las entidades de asesoramiento a las explotaciones agrarias mediante la aplicación de las medidas permitidas por la Ley. (En su caso, puesta en marcha de partidas nominativas por gastos de funcionamiento, contratación, establecimiento de un régimen de ayudas.)

Respecto a los gastos que supone el Registro Vasco de Entidades de Asesoramiento a Explotaciones Agrarias, decir que el citado registro ya existe, y fue creado por el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, que se va a derogar. En la

nueva norma, el citado registro se mantiene y actualiza, si bien su mantenimiento no supone cargas distintas ni mayores a las que la Administración ya tenía respecto a la inscripción y llevanza del Registro ya existente.

e) **Tramites e informes**: Que la norma tendrá que someterse a una serie de trámites e informes, que serán los siguientes:

1. *Tramites:* En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, los trámites a los que ha de someterse la norma que se va a elaborar, son los siguientes:

   - Como ya se ha indicado, se ha sometido a trámite de "consulta previa" a la redacción del proyecto, cuya Resolución de la Directora de Agricultura y Ganadería se publicó en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, otorgando un plazo de 15 días.
   - Se someterá al trámite de "audiencia" remitiendo la norma a las organizaciones representativas afectadas, que son las enumeradas en el apartado f) de la presente Orden.
   - Se dará participación a las diputaciones forales, por ser administración afectada por la norma a elaborar.
   - Que, respecto a la tramitación a la Unión Europea, dado el carácter de la norma, que no constituye ni un régimen de ayudas, ni entra en el ámbito de las reglamentaciones técnicas (Directivas 93/34 y 98/48) no será necesario proceder, respecto de la norma que se tramita, a la notificación, ni a la solicitud de autorización.

2. *Informes: En* cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16 y en el artículo 19 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, los informes a los que ha de someterse la norma que se va a elaborar, son los siguientes

   *De carácter esencial*

   - Control del Consejo Económico y Social Vasco, en aplicación de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco (artículo 3).
   - Control de la Oficina de Control Económico: En aplicación de la Ley de control económico y contabilidad de la CAE (art.25 y ss.), aprobado por Decreto legislativo 2/2017, de 19 de octubre.
   - Control de legalidad. La norma se remitirá a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 3, párrafo 1 apartado d) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi., para que emita su Dictamen.

   *No esenciales*

   - Control de política lingüística: En aplicación del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general. (artículo 2.)
   - Control de EMAKUNDE: En aplicación del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

- Control de la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales: En aplicación del artículo 12.1.d) del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno

Por último, y una vez finalizado los trámites e informes a los que se ha de someter la norma y que acaban de relatarse, se finalizará el procedimiento con la aprobación final por el Consejo del Gobierno Vasco y su posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, en aplicación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno (art. 18)

f) **Sujetos y organizaciones más representativas afectadas**. Que los sujetos y organizaciones afectados por la norma a elaborar son los siguientes:

- Centros de asesoramiento actualmente reconocidos: ABELUR, ABERE, AGA, LORRA, LURGINTZA
- Coordinadora centros asesoramiento: LURSAIL
- Fundación HAZI Fundazioa
- Organizaciones profesionales agrarias: UAGA, EHNE BIZKAIA, EHNE GIPUZKOA, ENBA BIZKAIA, ENBA GIPUZKOA.
- KONFEKOP.
- EKOLURRA-ENEEK.
- NEIKER, S.A.

g) **Técnica de traducción:** Para cumplir con lo dispuesto en el artículo 5 de la LPEDCG, la disposición normativa cuyo procedimiento de elaboración se inicia a través de esta orden y conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la LPEDCG, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la LPEDCG, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública

**h) Órgano instructor**. Que se designa como órgano instructor del procedimiento administrativo que conlleva la elaboración y tramitación de la norma cuyo inicio se acuerda mediante la presente Orden, a la Dirección de Agricultura y Ganadería.

i) **Que la propuesta de norma. S**e encuentra incluida en el Plan anual normativo del Gobierno Vasco del año 2025 previsto en el artículo 8 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, para el Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, incluído en la Orden de 7 de enero de 2025, de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la planificacio´n normativa anual del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

**j)** **Dosier**: Que a la presente Orden no se adjunta el "dosier" al que hace referencia el apartado c) del párrafo 1 del artículo 13 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, puesto que respecto de la norma proyectada no procede.

Siguiendo con el contenido exigido en el precitado apartado c) del párrafo 1 del artículo 13 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, indicar que la norma proyectada tiene capacidad de incidir, si bien de forma indirecta, en la situación de mujeres y hombres, ya que pese a que su objeto es técnico y es la regulación del régimen de las entidades de asesoramiento, en la norma hay que velar por que se cumpla lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en concreto en la composición de los órganos de dirección de las entidades de asesoramiento y en la contratación de su personal, puesto que van a ser entidades que reciban financiación pública.

Que el apartado primero del artículo 12 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone que "el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen".

Que es el Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, el competente en razón de la materia en virtud de las competencias atribuidas en el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como en el Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

En virtud de todo lo antedicho

**RESUELVO:**

**PRIMERO**: acordar el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de establecer el régimen de las entidades de asesoramiento a las explotaciones agrarias, y derogar el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**SEGUNDO**: materializar, el procedimiento de elaboración de la norma, de conformidad con el marco jurídico definido en la citada Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, así como de conformidad con los principios referidos en la parte expositiva de la presente Orden.

**AMAIA BARREDO MARTÍN**
**CONSEJERA DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA.**

**AGINDUA, ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA NEKAZARITZA-USTIATEGIEI AHOLKU EMATEKO ERAKUNDEEN ARAUBIDEA EZARTZEKO XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROZEDURARI EKITEA ETA NEKAZARITZA-USTIATEGIEI AHOLKUAK EMATEKO ERAKUNDEEI BURUZKO ABENDUAREN 26KO 272/2006 DEKRETUA INDARGABETZEA.**

Europar Batasunaren araudi berria aintzat hartuta, xedapen orokor bat egiteko prozedurari ekiteko eskaera egin du Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, nekazaritza-ustiategiei aholku emateko erakundeen araubidea ezartzeko eta Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzeko.

Horretan hasi aurretik, bete da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 11. artikuluan aurreikusitako izapidea; hau da, proiektua egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen, 15 egunez, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren Ebazpena, zeinaren bidez herritarrei aldez aurreko kontsulta egin baitzitzaien xedapen orokor bat sortzearen inguruan. Nekazaritza-ustiategiei aholku emateko erakundeen araubidea ezartzea eta Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzea da xedapen horren xedea.

Aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 13. artikuluak adierazten du zer eduki izan behar duen prozedura hasteko aginduak:

a) **Arauaren xedea eta helburua.**

Europar Batasuneko herrialde guztiek dute nekazaritza-ustiategiei aholku emateko sistema bat. Sistema horrek EBko arauak hobeto ulertzen eta betetzen laguntzen die nekazariei, ingurumenari, osasun publikoari eta animalien osasunari, animalien ongizateari eta nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza onei dagokienez.

Gaur egun, Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretuak arautzen du hori dena Euskal Autonomia Erkidegoan.

2021eko ekainean, negoziazio sakonen ondoren, nekazaritza-politika erkidea (NPE) aldatzeari buruzko akordioa lortu zuten Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak. Akordio hori formalki 2021eko abenduaren 2an lortu zen, eta 2023-2027 NPE 2023ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren bidez. Erregelamendu horrek nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen ditu (NPEaren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen ditu.

Europako araudiak aldaketak sartu ditu nekazaritza-ustiategiei aholku emateko sistemari dagokionez. Aldaketa horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduko 15. artikuluan ikus daitezke (2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituena (NPEaren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko

Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituena). Hortaz, beharrezkoa da aldaketa horiek Autonomia Erkidegoko araudian sartzea, ez baitzeuden sartuta orain indargabetuko den araudian.

Gainera, errekonozimendu-eskaeren izapidea eguneratu behar da, eskaerek telematikoak izan behar baitute Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14. artikuluaren arabera. Izan ere, artikulu horretan (“*Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra*”) ezartzen denez, pertsona juridikoek eta pertsona fisikoek, administrazio-prozeduretako edozein izapide egiteko, nahitaez erlazionatu behar baitute bitarteko elektronikoen bidez administrazio publikoekin, beren lanbide-jarduera dela-eta eskatzen denean.

Beharrezko eguneratzeak horiek izanik, eta kontuan hartuta Europako araudiak adierazitako zerbitzuak sartu behar direla, izapidetze telematikoa egin behar dela eta aldatu beharko litzatekeen dekretua 2006koa dela, egokiena da Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzea eta nekazaritza-ustiategiei aholku emateko sistema arautuko duen dekretu berri bat onartzea.

**b) Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala**. Egingo den araua bideragarria da juridikoki eta materialki, besteak beste, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 60. artikuluaren 2. paragrafoa garatzea baitakar. Lege horren bidez sortzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa. Azterketa juridikoak arau-eraginaren azterketaren memorian sakontzen du.

Eskumenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du izapidetzen ari den arauak jasotakoa erregulatzeko; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren arabera bere titulartasunekoak diren eskumenak erabiltzea baitakar arau horrek. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak hainbat gai aipatzen ditu, Estatutuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusibokoak direnak (10. artikulua), Estatuko oinarrizko legeria edo hark adierazitako oinarriak bere lurraldean lege bidez garatu eta betearaztekoak direnak (11. artikulua), edo Estatuaren legeria betearaztekoak direnak (12. artikulua).

Zehazki, proposatzen den arau-proiektuak arautzen duen gaia Konstituzioko 148.7 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.9 artikuluan ezarritako *“Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolakuntza orokorraren arabera”* eskumen esklusiboa garatzeko eta betearazteko eskumenaren babespean dago.

Lurralde historikoen aurrean duen eskumenari dagokionez, batetik, bereizi egin behar dira EAEko Autonomia Estatutuan lurralde historikoei berariaz aitortutako eskumenak, legegileak aldatu ezin dituenak, eta, bestetik, legegileak EAEko Autonomia Estatutuko 37.3.f) artikuluaren arabera lurralde historikoei esleitutako eskumenak, Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean jasotakoak, legelariaren erabaki askeko esparrua osatzen dutenak.

Arau-proiektuak jasotzen duen gaia ez zaie berariaz eta esklusiboki lurralde historikoei esleitzen azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7. a) artikuluan (Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoan), eta, hortaz, eskumena erakunde komunei dagokie, lege horretako 6. artikuluaren arabera. Era berean, ez dagokie lurralde historikoei dekretu-proiektuaren xede den gaia garatzeko eta betearazteko eskumena ere, ez baitago azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.b) artikuluan horretarako aurreikusitakoen artean.

Barne-eskumenari dagokionez, gaitasuna ematen duen araua dekretu hauetan dago jasota: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuan.

Abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuak 1. artikuluko a) paragrafoan xedatzen du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokiola *"nekazaritza eta abeltzaintza sustatu eta antolatzea".*

9.1.a) artikuluak, berriz, ezartzen du Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari dagokiola, besteak beste, *"programak eta jarduerak prestatu eta koordinatzea, sustapenekoak barne, nekazaritzako ustiategien ekoizpen-egituren lehiakortasuna hobetzeko eta digitalizazioa sustatzeko"*.

c) **Arauak ordenamendu juridikoan duen eraginaren analisia.** Egingo den arauak lehendik dagoen arau bat indargabetzea ekarriko du; hau da, Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzea. Hori dela-eta, eragina du EAEko egungo ordenamendu juridikoan.

Baina, aipatutako araua indargabetzeaz gain, nekazaritza-ustiategiei aholku emateko erakundeen araubidea berriz berregokitu da, hain zuzen ere 19 urteko aplikazioaren ondorioz sortutako behar berrietara, izapidetze telematikora, aholkularitza modernizatzeko eta profesionalizatzeko behar berrietara eta Europako araudi berrira eguneratzeko.

d) **Aurrekontu-eragina**. Lanketa-prozesuan dagoen arauak ez dauka zuzeneko eraginik aurrekontuan. Zeharkako aurrekontu-eragina baino ezingo du eduki, izan ere, Administrazioak hala erabakitzen badu, nekazaritza-ustiategiei aholku emateko erakundeei laguntza ekonomikoa eman ahal izango baitie legeak onartutako neurriak aplikatuz (hala badagokio, funtzionamendu-gastuetarako, kontratazioako eta laguntza-erregimen bat ezartzeko partida izendunak martxan jarriko ditu).

Nekazaritza Ustiategiei Aholku Emateko Erakundeen Euskal Erregistroak eragiten dituen gastuei dagokienez, esan beharra dago dagoeneko badagoela erregistro hori, orain indargabetuko den abenduaren 26ko 272/2006 Dekretuaren bidez sortu baitzen. Arau berrian, erregistro hori mantendu eta eguneratu egiten da, baina mantentze horrek ez ditu berekin ekarriko Administrazioak lehendik dituenaz bestelako kargak edo karga handiagoak, lehendik dagoen erregistroko inskripzioei eta erregistroa zaintzeari dagokionez.

**e) Izapideak eta txostenak**: Arauaren inguruko zenbait izapide eta txosten egin beharko dira. Zehazki, hauek:

3. *Izapideak:* Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, egingo den arauak izapide hauek bete beharko ditu:

   - Esan bezala, proiektua idatzi aurretik "aurretiazko kontsulta"ren izapidea egin da. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen, eta 15 eguneko epea eman zen.
   - "Entzunaldia"ren izapidea egingo da, eta araua bidaliko zaie eraginpeko antolakunde esanguratsuenei, agindu honetako f) apartatuan zerrendatutakoei, hain zuzen.
   - Foru-aldundiei parte hartzeko aukera emango zaie, landuko den arauak eragiten dien administrazioa direlako.
   - Europar Batasuneko izapideei dagokienez, eta arauaren izaera aintzat hartuta –izan ere, ez da laguntza-araubide bat, eta ez da sartzen araudi teknikoen esparruan (93/34 eta 98/48 Zuzentarauak)–, izapidetzen ari garen araua dela-eta, ez da beharrezkoa izango jakinaraztea, ezta baimena eskatzea ere.

4. *Txostenak:* Ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 16. eta 19. artikuluetan xedatutakoa betez, txosten hauek egin behar dira araua onartzeko:

   *Funtsezkoak.*

   - <u>Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kontrola,</u> maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak, 3. artikuluan ezartzen duena aplikatuz.
   - <u>Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrola</u>, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea aplikatuz (25. artikulua eta hurrengoak).
   - <u>Legezkotasun-kontrola.</u> Araua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaliko zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.d) artikuluan xedatutakoa betez, irizpena eman dezan.

   *Ez-funtsezkoak.*

   - <u>Hizkuntza-politikako kontrola</u>: Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua aplikatu behar da, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena (2. artikulua).
   - <u>EMAKUNDEren kontrola:</u> Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua aplikatu behar da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
   - <u>Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren kontrola:</u> Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuko 12.1.d) artikulua aplikatu behar da.

Azkenik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18. artikulua aplikatuz, araua dela-eta egin beharreko izapideak eta txostenak egin ondoren

(aipatu berri dira izapide eta txosten horiek), prozedurari bukaera emango zaio, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak arauari azken onarpena eman eta ondoren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

**f)** **Eraginpeko subjektu eta erakunde adierazgarrienak**. Egingo den arauak subjektu eta erakunde hauei eragingo die:

- Gaur egun aintzatetsita dauden aholkularitza-zentroei: ABELUR, ABERE, AGA, LORRA, LURGINTZA
- Aholkularitza-zentroen koordinatzaileari: LURSAIL
- HAZI Fundazioari.
- Nekazaritzako erakunde profesionalei: UAGA, EHNE BIZKAIA, EHNE GIPUZKOA, ENBA BIZKAIA, ENBA GIPUZKOA.
- KONFEKOPi.
- EKOLURRA-ENEEKi.
- NEIKER, S.A.ri.

**g)** **Itzulpen-teknika:** XOEPLko 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, agindu honen bidez abiarazten den arau-xedapenaren testua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 8.1 artikuluari eta XOEPLko 14.5 artikuluari jarraituz, ele bitan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatu behar da hizkuntza bakoitzaren bertsioa egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak ele bitan idatzita egon beharko du, aurretiazko onarpena eman eta instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Era berean, XOEPLko 27.3 artikuluaren arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren proiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla bermatzeko.

**h)** **Instrukzio-organoa**. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izendatzen da agindu honen bidez abiaraziko den araua egiteko eta izapidetzeko administrazio-prozedurako instrukzio-organo.

**i)** Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko urtarrilaren 7ko Aginduan onartzen da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2025eko arau-plangintza, eta bertan dago sartuta arau-proposamena. Bestalde, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 8. artikuluan aurreikusten da Eusko Jaurlaritzaren urteko araugintza-plana, eta bertan ere sartzen da arau-proposamena.

**j)** **Dosierra**: Agindu honi ez zaio erantsi Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 13. artikuluan, 1. apartatuko c) letran aipatzen duen dosierra, proiektatutako arauari dagokionez ez baita beharrezkoa.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 13.1.c) artikuluak eskatzen duen edukiarekin jarraituz, adierazi behar da proiektatutako arauak gaitasuna duela emakumeen eta gizonen egoeran eragiteko, zeharka bada ere. Izan ere, arauaren xedea teknikoa bada ere (aholkularitza-erakundeen araubidea arautzea) bermatu egin behar baita betetzen dela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak xedatutakoa, zehazki aholkularitza-erakundeen zuzendaritza-organoen osaeran eta langileen

kontratazioan, izan ere finantzaketa publikoa jasoko duten erakundeak izango baitira.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluko lehenengo apartatuan xedatzen duenez, “xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuan esleitutako eskumenen arabera, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak du gaiaren gaineko eskumena.

Hori dena dela eta, hau

**EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA**: xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 13. artikuluan ezarritakoa betez, xedapen orokor bat egiteko prozedurari ekitea, nekazaritza-ustiategiei aholku emateko erakundeen araubidea ezartzeko eta Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzeko.

**BIGARRENA**: araua egiteko prozedura gauzatzea, aipatutako Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen esparru juridikoaren arabera eta agindu honen azalpen-zatian aipatutako printzipioen arabera.

**AMAIA BARREDO MARTÍN**
**ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO SAILBURUA**